

BALIO PROPOSAMENA

BADAKIZUE ZENBAT EMAKUMEEK SUFRITZEN DUTEN HILEROKO MINARENGATIK?

ETA ZENBAT PERTSONAK UTZI DUTE ZERBAIT EGITEAZ MINARENGATIK?

Horretarako **KALORELLA enpresa** sortu dugu eta bertan produktu berritzailea sortu dugu→

PANZITATXILAX: bi funtzio erabilgarri dituen **gerriko poltsa** berezi bat da.

Produktu hau gazteen sormenetik sortuta dago, 17 urteko gazte talde batek egindako lehen proiektua da. Esperientzia gutxi izan arren, ilusioz eta sormen handiz egin dugu, eta gure helburua ez da soilik produktua saltzea, baizik eta osasuna eta erosotasuna sustatzea. PANZITATXILAX iraunkorra eta askotan erabil dezakezu.



Diseinu praktikoa eta eroso da, alde batetik, **beroa** eskaintzen du eta beste aldetik, berriz, **“hozkaile” txiki baten funtzioa** betetzen du:

-Barruko alde beroak hilerokoa dugun garaian edo gorputzeko beste atal batzuetan agertzen diren minak arintzen ditu, bereziki **obarioetako mina murrizteko** lagungarria da.

-Kanpoko aldean, freskotasuna mantentzen duen poltsiko berezi batean, botikak, txokolatea edo eguneroko bestelako gauzak gorde daitezke, beti eskura eta tenperatura egokian izateko.

PANZITATXILAX **eguneroko bizitzan erosotasuna eta ongizatea** eskaintzeko sortu da. Mugikortasun osoz erabili daiteke, lanean, ikasten, edo etxeko lanak egiten ari zaren bitartean. Ez duzu altxa beharrik izango behar dituzun gauzak hartzeko, poltsak ezinbesteko gauzak eramateko aukera izango du, bereziki, tamaina txikikoak. Adibidez: etxeko giltzak, mugikorra, aurikularrak, zerbait jateko... Merkatuan antzeko produktuak dauden arren, ez dago gure bi funtzioak batera eskaintzen dituen produkturik :

Gure zuzeneko konpetentzia Joom da, eta bertan hilerorako gerriko termikoak eta bestelako produktu antzekoak saltzen dira, batez ere beroa emateko eta mina

arintzeko. Hala ere, Joom-en eskaintzen diren produktuak normalean online bidez soilik eskuragarriak dira, eta ez dituzte bi atal bereizten: barnealdean hotza eta kanpoaldean beroa, gure produktuan bezala.

Bestetik, etxean soilik erabili daitezken poltsa beroak ditugu konpetentzia moduan: poltsa beroa, botila beroa, manta elektrikoa... produktu hauek mikrouhinean edo entxufe bidez berotzen dira eta etxean soilik erabili ditzazkezu, honek erabilera murrizten du eta kanpora ezin duzu atera. Gure produktua aldiz, kanpora atera daiteke.

Bukatzeko, hasaika gure produktuarena bezalakoa den termiko gerriko bat da eta horrek, gure enpresaren konpetentzia nagusia suposatzen du. Gerriko honek, beroa ematen du eta bibrazioak eskaintzen ditu, mina arintzeko diseinatua, eta tenperatura ezberdinak ezartzeko aukera du. Hasaika enpresarengandik desberdintzen gaituenta, ezin dira kalera atera (poltsa beroa, manta elektrikoa...)

Baina gure konpetentzi nagusiak kanpora ateratzeko aukera du, baina zerbaitek ezberdintzen gaitu, beroa eta hozkailu-poltsiko praktikoa izatea alegia. Horixe da gure desberdintasun nagusia, eta horregatik uste dugu emakume zein gizon askok nahi izango dutela horrelako bat eduki, min fisikoak arintzeko eta eguneroko erosotasuna izateko.

KALORELLA, azken finean, **osasuna** eta **ongizatea**, bultzatzen duen produktua da. Horregatik, **garapen jasangarriko helburu hau kontuan hartu** dugu lana egitean.



Lagungarria da: hileroko minak eta gorputzeko beste min batzuk gutxitzeko. Horrela, osasuna eta ongizatea hobetzen ditu, batez ere emakumeena.

Energia eskuragarri eta ez kutsatzailea sustatuko du etorkizunean. Hasieran bero-sistemak bateria eramangarri batekin funtzionatuko du, baina etorkizunean **energia garbiago eta jasangarriago** batekin funtzionatzea nahi dugu.



Era berean, gerriko poltsen oihala ekoizteko **Ekomodo** enpresarekin lan egin dugu. Ekomodo Gipuzkoan kokatzen den enpresa bat da eta PET botiletatik lortutako plastikoa birziklatuak erabiltzen ditu oihalak egiteko. Horrela, hondakin plastikoak berrerabiliz eta poluzioa murriztuz, gure produktuak jasangarriagoak bihurtuko ditugu.



BIBLIOGRAFIA: Argazki hau ChatGPT sortutakoa da. Horretarako, hau eskatu genion: “Crea una imagen de una riñonera que de calor a la zona de la tripa pero que también tenga un bolsillo que se mantenga frío para guardar cosas dentro”